

Hartza eta erlea



HARTZA:

Eztiaren egarriz
heldu naiz korrika,
nahiz eta ez didazun
zuk egin gonbita.
Handia izateko
behar naiz elika.
Zure laguna naiz ta
ez nazazu pika.

ERLEA:

Ez nauzu engainatzen
hainbeste komeriz,
lapurtzera baitzatoz
zu gezur gehiegiz.
Gure erleontzira
ez etorri berriz.
Deabrutxo bat zara
aingeru aurpegiz.

HARTZA:

Zuk oraindik ez nauzu
ondo ezagutzen.
Esaten dudana dena
duzu txarto hartzen.
Eztirik ez hartzeko
ez du inon jartzen.
Eskean etorri naiz
eta ez lapurtzen.

ERLEA:

Egin dugun ezti
da geuretzat jana,
gose aurpegiz zatoz
zeuk jateko dana.
Lehenagotik dakigu
alferra zarana,
baina jan nahi baduzu,
egin zazu lana.


HARTZA:

Horrela hitz egiteko
zer bitxo zara zu!
Ia kokoteraino
eginda naukazu.
Duzun ezti guztia
azkar emaidazu,
erleontzia zutik
euki nahi baduzu.

ERLEA:

Niri bitxo ez deitu,
harroputz kirtena!
Nire etxean neu naiz
agintzen duena.
Mingain horretan sartzen
badizut eztena,
laster kenduko zaizu
ezti gose dena.

ZIHARA ETA OIHANE ENBETTA
(10 eta 12 urte zituztela)



1 Zer dela eta ari zaio hizketan hartza erleari?

2 Zer dio erleak hartzaren eskabideaz?

3 Markatu. Hurrengo adjektiboetatik zein erabiltzen ditu erleak hartzari buruz ari dela?

☐ Handia.

☐ Alferra.

☐ Deabrutxoa.

☐ Kirtena.

☐ Gezurtia.

☐ Harroputza.

4 Zergatik ez dio eman nahi ezlia erleak hartzari?

5 Eman irakurgaiak ageri diren hurrengo hitzen euskal ordainak.

• Pikatu: _____

• Bitxo: _____

6 Zer erabaki hartu du hartzak erlearen jarreraren aurrean?

7 Zer-nolako mehatxua egin dio hartzak erleari?

8 Eta zer erantzun dio erleak?

9 Bertsoak irakurri ostean, zein iruditzen zaizu bietatik indartsuena? Zergatik?

10 Azaldu. Zein da, zure ustez, bertso hauen irakaspenera?
